

# **Etxeko azentua eta eskolako azentua: azentuera biren azterketa**

**Iñaki Gaminde**  
**EHUko irakaslea**

Lan honetan hamabi urteko ume euskaldun zahar baten azentu ereduen ezaugarri nagusiak aztertzen dira. Batetik, bere ama hizkuntzaren eredia, hemen etxeko eredutzat aurkezten duguna, aztertzen da. Horretarako izen eta adjektiboak, talde klitikoak, pluralak, deklinabidea eta aditz jokatuak aztertuko ditugu. Bestetik, gauza bera egingo dugu, baina eskolako ereduari dagokionez. Azken eredu hau eskolarizatzeko prozesuaren eredu linguistikoa izan da, eta bere iritziz, Euskara Batu edo estandarretik hurbilen kokatzen dena. Gure artean lan esparru berria izanik, lanaren amaieran ikerkizun geratzen diren gune garrantzitsu batzuk iradokitzen dira.

In this work we present an analysis of the main characteristics of the accent models done for a 12 years old native basque speaker. First, the model of the his mother tongue here called the "family model" is presented; and nouns and adjectives, clitic groups, plurals, declination and conjugate verbs are analyzed. Then, a similar study is done with what we have called the "school model". The "school model" is the one that the boy has received during school period, and at the same time, the nearest to the standard, according to the boy. Being a new research field among us at the end of the work we suggest some subjects that would be worth researching in our opinion.

## 0. Sarrera

Euskara idatziaren baturatze prozesuak sortu duen nolabaiteko tradizioak ahozkoari eragiten diona ezin ukatuzkoa da. Euskaltzaindiaren Ahoskera Batzordeak egin zituen (1994) gomendio bakar batzuk izan ezik, honi buruz ez da arau finkorik eman, are gutxiago prosodiari dagokionez. Halaber, ezin ahanzi dira ikertzaile batzuen ekarriak, Txillardegiren (1984, 1992) eta Hualderen (1994) proposamenak; alabaina saio txalagarri horiek ez dute beharrezko garapenik izan eta haien horietan diraute.

Hala bada, urteokin, dela erdaldunei, dela euskaldunei Euskal Herriko bazter guztietan irakatsi izan zaien mintzatzeko euskara araubako hizkuntza izan da eta tokian tokiko irakasle bakoitzaren intuizioaren arabera irakatsi izan da. Arte horretan belaun zenbait alfabetatu eta euskaldundu egin dira; halandaze, esan daiteke tenorea heldu dela, besterik ezean, euren ekandu prosodikoak azter ditzagun. Batuaren sorreratik hona euskal hiztunen komunitatearen osaketa aldatu denez gero, jakin behar dugu aldaketa horien norabidea zein den eta zeintzuk diren joera nagusiak etorkizun hurbilaren gobernatzeko. Euskara Batuaren eredu mintzatuaren beharrez aldarrikatu duten bakar horiei jaramon handirik ez zaie egin, engoitik datuen argitara, berez sortu dena, bakarra balitz eta euskaldunek onar balezate, kontutan hartu beharko litzateke.

Baina guziaren aurretik egoeraren ezagutza oinarrizkoa izan beharko litzatekeenez, gure saio honen bidez ikerkizun daukagun esparru berrirako bidea ebakitzen hasi nahiko genuke.

Lan honetan ume euskaldun baten azentu ereduak aztertu nahi dira. Eta azentu ereduak darabiltzagu, izan ere, ume honek nahikoa ondo mugatutako eredu bi behintzat dauzka eduki. Euskaldun zaharrek euskara batua darabiltenean euron jatorrizko azentu ereduak aldatzen dutela gauza jakina den arren, ez dago guztiz argi zein den aldaketa horren nondik norakoa.

Azterketa hau egiteko Bilbon jaiotako hamabi urteko ume bat hartu dugu, beronen ama-hizkuntza euskara izan da eta etxeko eredu nagusia Gatikako euskara izan da; ama gatikarra eta aita euskaldun berria ditu, arreba txikia ere euskaldun zaharra da eta etxeko ereduari eusten dio. Bilbon bizi izanik, Gatikako euskara entzuteko eta erabiltzeko aukerak etxeko girora murrizten dira. Eskolan euskara batua edo ikasi du txikitatik D ereduari; eredu honetan burutu du orain arteko eskolarizatze prozesu osoa ere.

Lana burutu ahal izateko grabazioak egin zitzaizkion eredu biak bereiziz, hots, etxekoa eta eskolakoa. Lanean zehar ikusiko den bezala, bereizketa horren egitea ez da arazo larria izan, zeren ia guztiz desberdinak diren ereduak baitarabiltza eta harentzat, kasu gehienetan, bereizketa egitea gauza erraza baita.

Lana lau zati nagusitan banatuta aurkezten dugu; lehen zatian etxeko ereduaren azterketa egingo dugu, bigarrenetan eskolako ereduak hartuko dugu aztergai, hirugarrenean eredu bien arteko eraketa egingo dugu, azkenik, laugarren zatian ondorio batzuk iradokiko ditugu.

## 1. Etxeko eredia

Atal honetan aztertuko ditugunak izen eta adjektiboen azentuera, talde klitikoaren azentuera, pluralak, deklinabidearen kasu marken eragina, aditz partizipioak eta aditz jokatuak dira.

### 1.1. Izen eta adjektiboen azentua

Izen eta adjektiboen azentuera aztertu ahal izateko 124 berba jaso ditugu isolatuki. Jarraian berbok aurkezten ditugu mugatzailearen afijazioaren ostean agertzen diren silaba kopuruaren arabera. Berba guztiak singularrean agertzen dira.

**o-ó:** aisé, ardí, ardó, argí, arrí, asté, astó, até, baltzá, begí, beró, besó, beyé, burú, firú, erlé, errí, eskú, esné, etzé, eulí, eurí, gastái, gasté, gatzá, giltzé, gorri, idí, ikó, katú, keá, lodí, lorá, lurré, matzá, ogí, olló, oná, otzá, oyá, porrú, sagú, sarrá, semé, subí, sué, surí, surré, troñú, trumói, txarrí, txorí, ulé, umé, uré

**ó-o:** ábi, básu, léku, máye, súte

**o-o-ó:** afarí, agoá, alabé, arañé, armosú, arpegí, arratói, bedarrá, bellegí, beluné, biotzá, edurré, eguné, gixoná, itturri, madarí, mutillé, odolá, okelé, orió, piperrá, sabalá, sagarrá, txakurré<sup>1</sup>

**o-ó-o:** baríku, bekóki, bentáne, doméka, egúski, erreke, eskóle, ixéko, ixéra, kinpúle, mallúki, neskáto, osábe, sapátu

**ó-o-o:** áittitte, ámoma, árrotze, bélarri, bés kari, índaba, íntxurre, íñurri, lándare, léngusu, óllarra, óllosko, pátate, yústuri

**o-o-o-ó:** abasusé, aberatzá, atzamarrá, atzasalá, giltzurruné, iretargí

**o-ó-o-o:** alkóndare, astélena, egúena, egústena, martítzena

Etxeko ereduaren ezaugarririk garrantzitsuenetariko bat erro azentudun eta azentubakoen arteko bereizketa dugu. Erro azentubakoek azentua hartzen dute azken silaban, azentudunak markatutzat har ditzakegu eta azentu lexikala daukatenak dira. Erro azentudunak 38 dira denetara, hau da kopuru osoaren % 30,64.

### 1.2. Talde klitikoaren azentuera

Azentua txertatzeko eremua zein den jakiteko, “da” adizki klitikoarekin batera ondoko adibideak jaso ditugu:

ure dá	sabala dá	óllosko da
ona dá	suri dá	astélena da
baltza dá	óllarra da	aberatza dá
sarra dá	seme dá	léngusu da
máye da	léku da	gaste dá
íntxurre da	odola dá	básu da
égi da		

1. Eskolako ereduaren eraginez, mugatzailea agerian daukaten hitzekin zenbaitetan azentua bigarren silaban ere ematen du: sagárra, txakúrre, sabála, e.a.

Honez gero, azentua txertatzeko eremua talde prosodikoa dela esan dezakegu, izan ere, talde klitikoaren azken silaban txertatzen da azentua; azentudun erroek eutsi egiten diote azentuaren egongune lexikoari.

Beraz, laburbilduz, Hualdek (1997) Gernikarako eta Gamindek (1997) Gatarako emandako ezaugarri berberak proposa ditzakegu etxeko eredu honen azentuera azaltzeko.

### 1.3. Pluralen azentuera

Pluralaren morfema azentuduna dela esan dezakegu, hots, kasu honetan aurreazentuatzaila da. Ondoko adibideetan aurreazentuazioaren kasuak ikus daitezke:

**ó-o:** árdik, ástok, báltzak, gástek, kátuk, ógik, óllok, ónak, sárrak, sémek, txárrik, txórik

**o-ó-o:** alábak, arrátoik, bentának, eskólak, gixónak, lagúnek, mutíllek, sagárrak, txakúrrek

**ó-o-o:** léngusuk

### 1.4. Deklinabidea

Deklinabidearen kasu marken jokabidea aztertu ahal izateko, bizidunen deklinabiderako “gizon” eta “gazte” hitzak eta, bizigabeen deklinabiderako, “herri” eta “taberna” hartu ditugu. Jarraian paradigmak ikus daitezke singularrean zein pluralean:

#### GIZON

##### Singularra

gixoná  
gixonarí  
gixonaná  
gixonáas  
gixonántzat  
gixonaaná

##### Plurala

gixónak  
gixónari  
gixónana  
gixónakas  
gixónantzat  
gixónakana

#### GAZTE

##### Singularra

gasté  
gasterí  
gastená  
gastéas  
gasténtzat  
gasteaná

##### Plurala

gástek  
gásteri  
gástena  
gástekas  
gástentzat  
gástekana

#### HERRI

##### Singularra

errín  
erriré  
erríttik  
errikó  
erríraño

##### Plurala

érritten  
érrittera  
érrittetik  
érritteko  
érritteraño

#### TABERNA

##### Singularra

tabernán  
tabernará  
tabernátik  
tabernakó  
tabernáraño

##### Plurala

tabérrnatan  
tabérrnatará  
tabérrnataratik  
tabérrnatarakó  
tabérrnataráno

Paradigmatan ikusten den moduan, plurala azentudun gisara agertzen zaigu kasu guztietan. Bestalde sozietiboa (-as), destinatiboa (-ntzat), ablatiboa (-tik) eta adlatibo bukatuzko (-raño) kasuen morfemak azentudunak dira; denak ere aurreazentuatzailatzat jo ditzakegu.

## 1.5. Aditz partizipioen azentuera

Aditz partizipioen azentuera azaltzeko, ondoko adibideetan ikusten den bezala, izen eta adjektiboen azentuera azaltzeko eman ditugun arau berberak proposa ditzakegu. Hemen ere partizipio azentudunak azentua azken silaban ez daukatenak dira:

**o-ó:** ausí, bistú, edán, emón, entzún, erré, esán, galdú, ién, irí, saldú, sartú, yarrí, yosí

**o-o-ó:** berotú, egosí, ekarrí, erosí, eskatú, garbittú, ikusí, lodittú, otzítu, sorrostú

**o-ó-o:** akába, amáta

## 1.6. Aditz jokatuena azentuera

Aditz jokatuena azentuera aztertzeko lehenaldia, aspektu ez-burutua eta geroa ikertuko ditugu. Horretarako ondoko adibideez baliatuko gara:

Silaba bateko erroak

yo dót  
yan dót  
il dót

yo dosú  
yan dosú  
il dosú

yóten dot  
yáten dot  
íltten dot

yóko dot  
yángo dot  
ílko dot

Silaba biko erroak

erre dót  
edan dót  
ausi dót  
galdu dót  
yosi dót  
saldu dót  
emon dót  
esan dót

erre dosú  
edan dosú  
ausi dosú  
galdu dosú  
yosi dosú  
saldu dosú  
emon dosú  
esan dosú

érreten dot  
édaten dot  
áusten dot  
gálduten dot  
yósten dot  
sálduten dot  
émoten dot  
ésaten dot

érreko dot  
édango dot  
áusiko dot  
gálduko dot  
yósiko dot  
sálduko dot  
émongo dot  
ésango dot

Hiru silabako erroak

ekarri dót  
sorrostu dót  
erosi dót  
berotu dót  
eskatu dót  
ikusi dót  
garbittu dót  
akába dot  
amáta dot

ekarri dosú  
sorrostu dosú  
erosi dosú  
berotu dosú  
eskatu dosú  
ikusi dosú  
garbittu dosú  
akába dosu  
amáta dosu

ékarten dot  
sorróstuten dot  
érosten dot  
berótuten dot  
eskátuten dot  
íkusten dot  
garbíttuten dot  
akábaten dot  
amátaten dot

ekárriko dot  
sorróstuko dot  
erósiko dot  
berótuko dot  
eskátuko dot  
ikúsiko dot  
garbíttuko dot  
akábako dot  
amátako dot

Aditz partizipioa azentuduna ez bada, azentua, partizipioa eta laguntzailea batu ostean, azken silaban txertatzen da. Haatik, partizipioa azentuduna bada, berorren azentua gailentzen da. Aspektu ez-burutuaren eta geroaren morfemak aurre-aurreazentuatzaileak dira, hots, azentua morfemaren silaba bi aurretik txertatzen da, edo aurreko silaban berau bakarra denean.

## 2. Eskolako eredua

Etxeko eredua aztertu ahal izateko egin dugun bezala, eskolako eredua aztertuko dugu atal berdinak kontutan hartuta.

### 2.1. Izen eta adjektiboen azentua

**ó-o:** béltza, béya, gásta, gátza, gíltza, kéa, lúrra, mátzta, máya, néska, óna, ótza, sárta, súa, úra

**o-ó-o:** aiséa, aitóna, alába, amóna, aóa, ardía, ardóa, argía, aría, arráultza, arría, astéa, astóa, atéa, begía, belárta, beláuna, beróa, besóa, biótza, burúa, egúna, elúrta, erléa, erréka, erría, eskóla, eskúa, esnéa, etxéa, eulía, euría, gastéa, gisóna, gorría, idía, ikóa, illéa, intxáurra, isára, iséba, katúa, kinpúla, lekúa, leyóa, lodía, loréa, mutílla, odóla, oéa, ogía, okéla, ollárta, ollóa, oría, osába, patáta, pipérta, porría, sabála, sagárta, sagúa, seméa, subía, sudúrta, suría, trumóya, txakúrta, txerría, tximísta, txingórta, txoría, uméa, urtéa

**ó-o-o:** ábia, índaba

**o-ó-o-o:** abératza, afária, alkóndara, armíarma, arpégia, arrátoya, astélena, atzámarra, atzásala, baskária, bekókia, belárta, egúskia, gíltzúrta, gosária, igánda, illárgia, iñúrta, itúrta, landárea, larúnbata, madária, marrúbia, olíoa, olláskoa, ostéguna, ostírala, sukáldea

**ó-o-o-o:** léngusua

**o-ó-o-o-o:** astéartea, astéaskena, edálontzia, korápilloa

Eman berri ditugun datuak azaltzeko proposa ditzakegun arauak nahikoa errazak dira. Batetik azken silaba estrametrikaltzat hartu behar dugu, izan ere, azentua ez da behin ere bertan agertzen. Azentueraren arau orokorra [2] dugu, estrametrikalitatearen arauaren ostean:

1. Azken silaba estrametrikala <>
2. Azentua 2. silaban [2] edo libre dagoen silaba bakarrean

	lurra	neska	txakurra	madaria	edalontzia
1	lu<rra>	nes<ka>	txaku<rra>	madari<a>	edalontzi<a>
2	lú<rra>	nés<ka>	txakú<rra>	madári<a>	edálontzi<a>

Agertzen diren morfema markatuak hiru baino ez dira, *ábia*, *índaba* eta *léngusua*; kontutan hartzen badugu eskolako ereduan azentuera analogiaz erregularizatzeko erakusten duen joera, hitz horiek eskolako ereduan ez dituela ondo barneratu edo ez dituela ondino ezagutzen pentsa dezakegu.

### 2.2. Talde klitikoaren azentuera

Hona hemen “da” adizki klitikoarekin jaso ditugun adibideak:

úra da  
óna da  
béltxa da  
sárra da  
máya da  
gastéa da  
egía da

sabála da  
suría da  
ollárra da  
seméa da  
lekúia da  
intxáurra da

olláskoa da  
astélena da  
abératza da  
léngusua da  
edálontzia da  
odóla da

Silaba bakarreko erroen adibideek adierazten duten bezala, azentua erroarena dela esan dezakegu, izan ere, errotik ez da azentua lekutzen.

Aurreko atalean emandako arauak atxeki behar ditugu, zeren “a”dun hitzak bestela ezin azal genitzake, hots, estrametrikalitatearen arauaren bidez, *néska* eta *gásta* moduko hitzen azentuerak azaltzen dira; *úra*, *óna* eta gainerako erro monosilabikoen azentuera azaltzeko ez dugu horrelakorik behar, azentua erroarena baita.

### 2.3. Pluralen azentuera

Ondoko adibideetan ikusten den bezala, pluralaren morfemak ez dauka inongo eraginik eta pluralak singularren bide beretik azentuatzen dira.

**ó-o:** ónak, sárrak, béltxak

**o-ó-o:** lagúnak, mutíllak, ardíak, seméak, eskólak, gisónak, txoríak, ollóak, gastéak, ogíak, leyóak, astóak, katúak, sagárrak, txakúrrak, txerriak, alábak

**o-ó-o-o:** arráttoyak, abératzak

**ó-o-o-o:** léngusuak

### 2.4. Deklinabidea

Deklinabidearen paradigmak osatu ahal izateko, etxeko eredurako aukeratu ditugun hitz berberak erabili ditugu:

#### GIZON

##### Singularra

gisóna  
gisónari  
gisónarena  
gisónarekin  
gisónarentzat  
gisónarengana

##### Plurala

gisónak  
gisónei  
gisónena  
gisónekin  
gisónentzat  
gisónengana

#### GAZTE

##### Singularra

gastéa  
gastéari  
gastéarena  
gastéarekin  
gastéarentzat  
gastéarengana

##### Plurala

gastéak  
gastéei  
gastéena  
gastéekin  
gastéentzat  
gastéengana

#### HERRI

##### Singularra

errían  
erríra  
errítik  
erríkoa  
erríraño

##### Plurala

erríetan  
erríetara  
erríetatik  
erríetakoa  
erríetaraño

#### TABERNA

##### Singularra

tabérnan  
tabérnara  
tabérnatik  
tabérnakoa  
tabérnaraño

##### Plurala

tabérnetan  
tabérnetara  
tabérnetatik  
tabérnetakoa  
tabérnetaraño

Tauletan ikusten den bezala, kasu markek ez daukate inongo eraginik, absolutuan lortzen den eskema azentual berberari eusten zaio edozein kasu marka itsatsita ere.

## 2.5. Aditz partizipioen azentuera

Ondoko aditz partizipioetan ikusten den bezala, azentuera azaltzeko izen eta adjektiboen azenturako proposatu ditugun arau berberak eman behar dira; bestalde, ez zaigu partizipio markaturik bat ere agertu.

**ó-o:** édan, éman, éntzun, ésan, gáldu, ígo, óstu, pístu, sáldu, sártu, yósi

**o-ó-o:** amáitu, apúrto, berótu, egósi, ekárrri, erósi, eséri, eskátu, garbítu, ikúsi, ireki, itzáli, lodítu, sorróstu

## 2.6. Aditz jokatuaren azentuera

Etxeko ereduaren azterketarako egin dugun moduan, hemen ere aspektu mota guztiak aztertuko ditugu.

Silaba bateko erroak

yó dut	yó dusu	yótzen dut	yóko dut
yán dut	yán dusu	yáten dut	yángo dut
íl dut	íl dusu	íltzen dut	ílo dut

Silaba biko erroak

erré dut	erré dusu	errétzen dut	erréko dut
edán dut	edán dusu	edáten dut	edángo dut
galdú dut	galdú dusu	gáltzen dut	galdúko dut
yosí dut	yosí dusu	yósten dut	yosíko dut
saldú dut	saldú dusu	sáltzen dut	saldúko dut
esán dut	esán dusu	esáten dut	esángo dut
emán dut	emán dusu	emáten dut	emángo dut

Hiru silabako erroak

sorróstu dut	sorróstu dusu	sorrósten dut	sorróstuko dut
erósi dut	erósi dusu	erósten dut	erósiko dut
ekárrri dut	ekárrri dusu	ekártzen dut	ekárrriko dut
berótu dut	berótu dusu	berótzen dut	berótuko dut
eskátu dut	eskátu dusu	eskátzen dut	eskátuko dut
apúrto dut	apúrto dusu	apúrtzen dut	apúrtuko dut
ikúsi dut	ikúsi dusu	ikústien dut	ikúsiko dut
garbítu dut	garbítu dusu	garbítzen dut	garbítuko dut
amáitu dut	amáitu dusu	amáitzen dut	amáituko dut
itzáli dut	itzáli dusu	itzáltzen dut	itzáliko dut

Goiko datuak ikusita, silaba bakarreko partizipioen kasuan azentua partizipioak berak hartzen duela esan dezakegu, izan ere, ez da partizipiotik lekutzen (1). Gainerako kasuetan, hots, silaba biko eta hiruko erroen kasuetan, partizipioa laguntzailearekin batu eta ostean azentua txertatzen da arau orokorraren arabera (2).



(1)	[yo]	[dut]	[yo]	[dusu]
Azentua txertatu	[yó]	[dut]	[yó]	[dusu]
Laguntzailea batu	[yó dut]		[yó dusu]	
(2)	[edan]	[edan]	[dut]	[edan] [dusu]
Laguntzailea batu	[edan]	[edan dut]		[edan dusu]
Azkena estrame.	e<dan>	edan <dut>		edan du<su>
Azentua txertatu	é<dan>	edán <dut>		edán du<su>

“gáltzen”, “sáltzen” eta “yósten” horiek salatzen dutenaren arabera, aspektu ez-burutuaren morfema aurreazentuatzailetzat har dezakegu.

### 3. Eredu bien arteko erkaketa

Lan honen helburu orokorra ez bada ere, lexiko alorrean gertatzen diren lexia aldaketak, bide batez, ikustea interesgarria begitandu zait. Zerrenda honetan aldaketa fonetikoak ez ditugu kontutan hartuko, lexia osoen aldaketa baino. Aldatzen diren lexiak 22 dira, hau da kopuru osoaren % 17,74.

ETXEA	ESKOLA	ETXEA	ESKOLA	ETXEA	ESKOLA
abasusé	txingórra	baríku	ostírala	egúena	ostéguna
áittitte	aitóna	básu	edálonzia	egústena	astéaskena
ámoma	amóna	bellegí	oría	firú	aríá
arañé	armíarma	bentáne	leyóá	iretargí	illárgia
armosú	gosaría	doméka	igándeá	ixéko	iséba
mallúki	marrúbia	sapátu	larúnbata	troñú	korápilloa
martízena	astéarteá	súte	sukáldea	yústuri	tximísta
neskáto	néska				

Azentu eredu bien ezaugarriei dagokienez, esan dezakegu sistema desberdin bi erabiltzen dituela. Hiru irizpide nagusi oinarritzat hartzen baditugu, hau da, (1) azentua txertatzeko eremua, (2) azentueraren arau nagusia eta (3) hitz markatuen arazoa, sistema bien arteko errotiko desberdintasunez ohartuko gara.

- (1) Azentua txertatzeko eremuari dagokionez, etxeko ereduan berori talde prosodikoa dela esan dezakegu, eskolako ereduan, osterá, hitza bera dugu azentua txertatzeko eremua. Beste aukera bat, silaba bakarrekó erro guztiak markatutzat hartzea izango litzateke.
- (2) Azentueraren arau orokorrari dagokionez, etxeko ereduan berori 1] dugu (azentua talde prosodikoaren azken silaban txertatzen da), eskolako ereduan, osterá, [2 , baina azentua ezin azken silaban koka daiteke.
- (3) Ikusi izan dugun moduan, eskolako ereduaren joera nagusia hitz markaturik ez egitea da. Ondokó zerrendan ereduaren arabera, hitz bera edo antzekoaren jokabide prosodikó desberdinak ikus daitezke:

ETXEA	ESKOLA	ETXEA	ESKOLA	ETXEA	ESKOLA
áittitte	aitóna	béskari	baskaría	léku	lekúa
ámoma	amóna	íntxurre	íntxáurra	óllarra	ollárra
árrotze	arráultza	íñurri	íñúrria	óllosko	olláskoá
bélarri	belárria	lándare	landárea	pátate	patátá

#### 4. Ondorioak eta hurrengo lanak

Ikusi berri ditugun azentu aldaketek sistemari berari eragiten diote; bestalde, eredu bakoitzaren gizarte egoera eta ospe mailak kontutan hartzen baditugu, eskolako ereduak, etxekoari eragin ez eze, berau ordezkatzera ere hel daitekeela susma daiteke.

Eskolako ereduaren ezaugarriak Txillardegik eta Hualdek Euskara Baturako proposatutakoekin nahiko bat datozela ere esan dezakegu. Euskaldunberrien ekandu prosodikoei buruzko lan askorik ez daukagun arren, dauzkagunekin (Hualde 1997, Urkijo 1996, Lafuente eta Gómez 1997, Martínez, Mateo, Barrutia eta Eguskiza 1997) erkatuz gero, euskaldunberrien joera prosodiko nagusiek bat egiten dute gure hemengo eskolako ereduaren ezaugarriekin. Ezinbesteko ikerketek joera nagusi horiek baietsiko balituzte, Euskara Batua balizko prosodiaranzko bidean urrats tinkoa emango litzateke.

Nolanahi ere den, badira ereduaren garapenerako aztertu beharreko puntu garrantzitsu batzuk:

- (1) Azentua txertatzeko eremua zein den erabakitzea.
- (2) Estrametrikalitatearen arazoa.
- (3) Azentu bigarrenkaria azken silaban bai edo ez.

Azkenik, eta azkena izanagatik ere ez besteak baino garrantzi apalagokoa, azentua eta intonazioaren arteko loturarena geratuko litzateke.

#### Bibliografia

- Gaminde, Iñaki, (1997): *Gatikako euskaraz*, Gatikako Gogoz Euskara Taldea, Gatika.
- Hualde, José Ignacio, (1994): "Euskal azentu ereduaren sailkapenerako", Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean aurkeztutako txostena.
- , (1997): *Euskararen azentuerak*, Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", Gehigarriak XLII. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo eta Donostia.
- Lafuente, Enrique eta Gómez, Samuel, (1997): "Gasteizko euskaldunberrien azentuaz", eskuizkribua.
- Martínez, Rosana, Mateo, Itziar, Barrutia, Zuriñe eta Eguskiza, Argia, (1997): "Ezkerraldeko euskaldunberrien azentu-moldeak", eskuizkribua.
- Txillardegik, (1984): *Euskal azentuaz*, Donostia, Elkar.
- Urkijo Orueta, Jon Iñaki, (1996): "Laudioko euskaldunberrien azentuaz (hurbilpen modukoa)", eskuizkribua.